

## Sartzeko baldintzak eta onartzeko irizpideak

Deustuko Unibertsitateko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradura kualifikazioa duen edozein pertsona sar daiteke, adina, sexua, arraza, erlijioa, ezgaitasuna, sexu orientazioa, jatorria edo bestelakoa edozein dela ere.

Gradu horretako sarbidea maiatzaren 12ko EDU/124/2011 Aginduak zehazten duenaren arabera egingo da. Agindu horrek maiatzaren 29ko EDU/1434/2009 Agindua aldatu zuen, 14ko 1892/2008 Errege Dekretuaren eranskinak eguneratzeko argitaratu zena. Aipatutako Errege Dekretuan arautzen dira Graduako unibertsitate ikasketa ofizialetara sartzeko baldintzak eta Espainiako unibertsitate publikoetako onarpen prozedurak.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, ikasketa hauetarako sarbidea eska dezakete hurrengo egoeretako batean daudenek:

- Batxilergo titulua dutenek, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren, Hezkuntzari buruzkoaren, 37. eta 50.2. artikuluen arabera.
- Europar Batasuneko herrialdeetako hezkuntza sistemetatik edo Espainiarekin nazioarteko akordioak sinatu dituzten herrialdeetako hezkuntza sistemetatik datozen ikasleek, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 38.5 artikulua aplikatuta, nork bere herrialdean unibertsitate sartzeko behar diren baldintzak betetzen badituzte.
- Atzerriko beste hezkuntza sistema batzuetatik datozen ikasleek, beren jatorrizko titulua Espainiako Batxilergo tituluekin homologatzeko eskaera egin ondoren.
- Lanbide Heziketako ikasketei eta Arte Ikasketei dagokien goi mailako teknikari titulua edo Kirol Ikasketei dagokien goi mailako kirol teknikari titulua duten ikasleek, 2/2006 Lege Organikoaren, Hezkuntzari buruzkoaren, 44., 53. eta 65. artikuluen arabera.
- Hogeita bost urtetik gorako pertsonak, abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren, Unibertsitatei buruzkoaren, hogeita bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera.
- Lan edo lanbide esperientzia ziurtatzen duten pertsonak, abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren, Unibertsitatei buruzkoaren, 42.4. artikuluan eta horren idazkeraren aldaketa den apirilaren 12ko 4/2007 Legean aurreikusitako prozeduraren arabera.
- Berrogeita bost urtetik gorako pertsonak, abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren, Unibertsitatei buruzkoaren, 42.4. artikuluan eta horren idazkeraren aldaketa den apirilaren 12ko 4/2007 Legean aurreikusitako prozeduraren arabera.

Era berean, Gradu ikasketak egin ahal izango dituzte hurrengo baldintzetako bat betetzen duten pertsonak:

- Graduako unibertsitate titulu ofizial bat edo titulu baliokide bat dutenek.
- Unibertsitate ikasketen aurreko antolamenduan, unibertsitateko diplomadun, arkitekto tekniko, ingeniari tekniko, lizentziadun, arkitekto edo ingeniari unibertsitateko titulu ofiziala edo titulu baliokide bat dutenek.
- Atzerrian unibertsitate ikasketen zati bat eginik edo, atzerrian ikasketak amaituta, Espainian homologatzerik lortu ez eta Espainiako unibertsitatearen batean ikasten jarraitu dutenek. Kasu horretan, ezinbesteko baldintza izango da atzerriko unibertsitateak gutxienez 30 kreditu aitortzea.

### **Sartzeko gomendatzen den profila**

Deustuko Unibertsitateko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako titulazioak askotariko diziplinak batzen ditu, bai edukiari dagokionez eta bai lan irteeren aukera zabalari dagokionez. Horregatik, ikasle mota ororentzat da erakargarria, Unibertsitatera sartu aurretik hautatu duten ibilbidea edozein izanik ere.

Gaur egun, LOGSE Batxilergoan, 4 modalitateen artean hauta daiteke (Arteak, Naturaren eta Osasunaren Zientziak, Giza eta Gizarte Zientziak, eta Teknologia).

Giza eta Gizarte Zientziak, Naturaren eta Osasunaren Zientziak, eta Teknologia modalitateetako ikasleek egin dituzten zenbait irakasgai (Ekonomia, Ekonomia eta Enpresen Antolaketa, Matematika edo Gizarte Zientzietara aplikatutako Matematika) lagungarriak dira titulazioan hobeto txertatzeko eta, gainera, ikasketak hautatzen ere lagunduko zieten.

Nolanahi ere, titulazio hau ikasi nahi dutenei gomendatzen dizkiegun oinarrizko eskakizunen artean honakoak aipa daitezke:

- Enpresa munduarekiko interesa.
- Ingeles maila ertaina/altua.
- Etengabe lan egiteko eta ahalegintzeko gaitasuna, baita estresari eusteko gaitasuna ere une jakin batzuetan.
- Norberaren burua ezagutu eta heldutasun maila nahikoa, eta pertsonen arteko harremanetarako gaitasuna.

### **Sarrera probak**

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradua gure programa konbinatuetako edozeinekin (titulu propioak edo gradu bikoitzak) batera egin nahi duen hautagaiak sarrera proba egin beharko du:

- Ingeleseko testa, B2 mailaren baliokidea duela erakusteko (ez da probarik egin beharko hautagaiak maila horren ziurtagiria erakusten badu).

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradua egin nahi duen hautagaiak ez du ingeleseko maila hori erakutsi behar izango eta, hortaz, ez du ingeleseko probarik egin behar izango.

### **Sartzeko eskakizunak**

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako ikasketak egiteko LOGSE Batxilergoko (edo baliokideko) bigarren mailako ikaslea izan behar da, edozein modalitatetan, Arteetan izan ezik. Batxilergoko bi mailetan, nahitaezkoa da dagokion modalitateko Matematika irakasgaia egitea. Eta, noski, Unibertsitatera Sartzeko Hautapropa gainditu behar da.

Gainera, hurrengo onarpen irizpideak hartuko dira kontuan.

### **Onarpen irizpideak**

Sarrera Batzordeak hainbat elementu hartuko ditu kontuan hautagaia onartu ala ez erabakitzeko:

- Erabakia hartzeko orduan, eskuragarri dagoen ikasketa espedientea osoa (normalean, DBHko 4. mailakoa eta Batxilergoko 1. mailakoa). Esperientziaren arabera, programa konbinatu bateko hautagaiek (EAZ+titulu propioa edo gradu bikoitzak) oso ongi edo goragoko batez besteko nota eduki beharko lukete.
- Programa konbinatu bat egin nahi duten hautagaiek (EAZ+titulu propioa edo gradu bikoitza) ingeleseko B2 maila eduki behar dute, Europako Kontseiluaren Hizkuntzetarako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera. Maila hori egiaztatzeko bi bide daude: agiri ofizial bat aurkeztu eta/edo sarrera probetan ingeleseko proba egin. EAZko gradua egin nahi duten hautagaiek ez dute ingeles maila hori erakutsi behar eta, horrenbestez, ez dute sarrera probako ingeleseko proba egin behar.
- Hautagaiak bestelako meritu batzuk erakusteko aurkezten duen dokumentazioa.
- Eskaintzen diren tokien kopurua.

Egoki ikusiz gero, Sarrera Batzordeak hautagaia banakako elkarrizketa batera deitu dezake edo bestelako dokumentazioa eska diezaioke.

EAZko titulua eskuratzeko, ingeleseko C1 maila egiaztatu beharko da. Horretarako, agiri ofizial bat erakutsi beharko da, esate baterako, Cambridgeko Certificate in Advanced English edo, agiririk eduki ezean, Fakultateko barne proba gainditu.